

# ANDRA ANKERRA

## (Ludiko ipuin zarra)

### ANDRA ANKERRA

Juanote mutil sendoa zan, ez eukan iñoren, ez ezeren bildurrik, baiña bai andrakoai emaztegai izateko eskaria egiteko lotsea: Olako eskaria egiteko erabagia artzen ebanean, lotsa gorritan aurkitzen zan.

Egun baten bere buruari onelan berba egin eutson:

—Juanote, bakarrik ez az ondo bizi. Etixerako lagun bat bear dok! Or auzoan bizi dokan andrazko sendo ori litzakek itzat lagun ona. Lotsak alde batera itzi eta egiok eskintza.

Eta bete eban asmoa, auzoko andra orrek baietza be emon eutson, baiña laster agertu jakon eragozpena. Ona emen etxeko aita zarraren berbak:

—Ez, seme, andra orregaz ezkontzarik ez. Irutan ezkondu dok ori eta irugarrena be, zapo-saldea emonda-edo, jatekorik gertatu ezagaitik-edo, laster kendu jok ingurutik. Iri be beste orrenbeste egingo dua orrek. Ez, seme, andra orregaz ezkontzarik ez.

\* \* \*

Egin zan ezkontzaren ospakizuna eta aldi guztian ez zan besterik entzuten, ezkon-aurrean eta ostean, au baiño: Ai gure Juanote! Ez da makala, baiña oraintxe ez luzaroko senar!

Ezkonbarriak etxeratu ziranean, ez zan etxe aretan ezelako zararik entzuten. Arrituta egozan auzokoak. Egun batzuk geroago jakin eben etxe aretan baketsu ta zoriontsu bizi zirala ezkonbarriak.

Zelan izan zan ori? Ona emen ezkutukia argituta.

\* \* \*

Senar-emazte barriak etxeratu ziran egun beratan, Jaunote'k bere emaztearen aurrean artu eban ezpatea, zoro baten antzera begiak gorrituta, eta esan eutson etxeko katuari:

—Katu! Ekarri egistak ura eskuak garbitzeko edo il egingo aut!

Katuak ez eutson urik ekarri eta Juanote'k ezpateaz zati-zati egin eban.

Urrengo egunean txakurrari esan eutson:

—Txakurra! Ekarri egistak ura eskuak garbitzeko edo il egingo aut!

Txakurra be ez eukan olako oiturarik eta ez eutson ekarri eta Juanote'k bardin zatitu eban ezpateaz.

Irugarren egunean kortara joan eta zaldiari esan eutson:

—Zaldia! Ekarri egistak ura eskuak garbitzeko edo il egingo aut!

Zaldiak be ez ekian olako esanik egiten eta ez eutson urik ekarri eta Juanote'k bere ezpateaz zulatu eta ankaz gora bota eban.

Gauza oneik ikusita, emazte-barri ankerra bildur-ikaraz dar-dar egoan eta Juanote'ren begiak ikusteak be bildurra sartzen eutson.

Olako baten ba-diñotso Juanote'k bere emazteari:

Emaztea! Gertatu egistazu jatordua edo il egingo zaitut!

Eta bai laster gertatu be! Ostean zer etorri leitekean argi eta ziur ikusten ebalako. Argi ikusten eban esanak ez egiteak dakarren ondorena eta zeatz beteten ebazan bere senar-barriaren agindu guztiak.

OLAZAR'tar MARTIN'k  
(Euskeraz moldatua)